


# AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2020-01-17 / 634. ZENBAKIA / 16. URTEA  
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

## Larramendi eguna, hilaren 25ean

'Ezina egina' leloaren giza irudi erraldoia osatu eta argiz bete nahi du, Larramendi Bazkunak. Hilaren 25eko ekitaldian partze hartzeko deialdia luzatu du / 15

**Aurrekontuen partida bat kudeatzeko parte-hartze prozesu berria abiarazi du Urrietako Udalak** / 5

**'Andoain Laburrean' eta 'Diaporama lehiaketa', gazteei zuzendutako lehiaketak** / 8, 11



**"Nire belaunaldikook gaizki pasa dugu, mina jasan dugu, eta hori ez da ahazten"**

Oscar Villafañe Merino ETaren biktima bikoitzari elkarrizketa / 2-4

AIURRI



## ATE IREKIAK

DBH (Batx. / DBH-ko eraikina)  
HH/LH (HH/LH-ko eraikina)  
**URTARRILAren 25ean 11:00etan**



**Matrikulazio epea: urtarrilaren 27tik otsailaren 7ra**

+ INFO [www.magaleikastetxea.eus](http://www.magaleikastetxea.eus)  
943 55 17 82 (HH · LH) / 943 55 17 89 (DBH · BATX.)



X.Lasa/J.A.Ubeda ANDOAIN

Historia lazarri baten jabe izan arren, orain arte diskreziolari eutsi nahi izan dio, biktimen alorrean parte-hartze eskasa edukiz. Nolanahi ere, ez du eragozpenik jarri Aiurri astekaria-ri bere bizipen pertsonalen berri emateko. Aitari eta aitonari buruz aritu da, baita biktimekin zerikusia duten beste zenbait gairi buruz ere: biktimak, biolentzia, elkarbizitza...

**Oscar, etxean zinen aitona hil zuen lehegailuak etxe azpian eztanda egin zuenean. Geroago jakin zenuen, urte batzuetara, ezagutu ez zenuen aita ere ETak erail zuela. Zer da aitaren heriotzaz dakizuna?**

Nire aita 1978ko uztailaren 5ean erail zuten, goizaldeko 01:00ak aldera, Hotel Duqueren atarian. Andoaindik zetorren, nire amarekin egon ostean. Ez zeuden ezkondata, ez ziren izatezko bikote, eta ez dago familia-ginela erakusten duen familia-liburu edo agiririk. Nire ama ez zen alargun geratu, Estatuaren eta biktimekiko legeen begiradapean. Ezkondu gabeko emakumea zen, haurdun zegoena. Ez zuten eraildako pertsona baten emazteztat hartu. Bi hilabetera jaio nintzen ni, 1978ko irailaren 19an.

Atentatuaren egilea identifikatu egin zuten; Errenteriako pertsona bat zen, eta hainbat urte igaro zuen kartzelan. Ez dakit, gaurko egunez, espetxean edo aske dagoen.

**Aitonaren hilketaren lekuko izan zinen. Zer oroitzen duzu?**

15 urte nituen. Ordua zehatz-mehatz gogoratzen dut, baita jaten ari nintzena ere. Gaztaz beteriko ogi-xerra ari nintzen jaten, menbrillo zatitxoekin batera. Irailaren 26a zen, osteguna, eta lehegailuak 17:35ean egin zuen eztanda.

Juvenal aitona autoa etxetik ahalik eta gertuen uzteko ohitura zuen, bizi ginen Eskola kalean bertan. Egun hartan, Makaldegira jaitsi zen ibilgailua etxe ondora gerturatzerara. Eta hantxe galdu zuen bizia aitona, etxean bizi ginen gainerakook ez bezala. Izan ere, hori ostegunarekin gertatu zen, baina igandea izan balitz zer? Nire urtebetetze eguna zen eta beharbada, autoa hartu eta ospatzera joango ginen. Pertsona bakarra lehertu beharrean, denak lehertuko ginatkeen orduan. Edota, bat-batean, haurrak zeramatzen autobusa pasa izan balitz? Edota lehegailuak



Oscar Villafañe Merino andoaindarra, Eguberri hauetan Andoaingo Bastero plazan ateratako argazkian. AIURRI

# "Elkarbizitza ez dago erakundeen esku, jendearen esku baizik"

**OSCAR VILLAFañE MERINO ANDOAINDARRA**

ETAren biktima bikoitza da: 1978an, Domingo Merino Arevalo, bere aita, erail zuen Zarautzen. 1993an, berriz, Juvenal Villafañe García aitona Andoainen bertan

16:40ean eztanda egin izan balu, haurrak ikastolatik edota Ondarretatik irten zirenean? Sekulako sarraskia gertatuko zen, aitona erailtzen ahalegintzeagatik.

Hirugarren solairuan bizi ginen, eta lehegailuaren eztanda lurrera bota ninduen. Gaztaz beteriko ogi-xerra musika-aparailuaren bozgorailuan itsatsita geratu zen. Bertan egon zen hilabetez, ez bainuen denbora tarte horretan bozgorailutik kentzeko adorerik izan. Leihoko kristalak aurpegira erori zitzaizkidan. Lurrean nengoan, eta jaiki bezain pronto amonarengatik galdetu nuen. Baina erantzuten ez zuela ikusita, "ETak aitona erail du" ideia etorri zitzaidan burura. Balkoira atera nintzen korrika, eta lehegailuaren eraginez txikituta ikusi nuen aitona bertatik. Etxean amona, ama, Carmen izeba eta laurok geunden. Blanca izeba Santanderren zegoen, eta autobusean bueltan zetorrela jaso zuen ezbeharraren albistea.

Ez nintzen etxetik atera, antsietate atakea izan nuelako. Erizainak etorri ziren, eta lasaigarri modura bi pastilla eman zizkidaten.

**Eskaini dituzun elkarrizketa bakanetan adierazi duzu aitaren parekoa zenuela Juvenal aitona...**

Nirekin pertsona ona izan zen. 18 urte betetzen nituenean, nik gida-baimena eskuratzeko ilusioa zuen. Andoainen pertsona maitatua zen. San Martin elizan egin zioten azken agurra datorrit burura; bere gorpua elizatik atera zutenean, plaza osoa jendez gainezka zegoen eta txaloka hasi ziren denak.

Ez zen hitz bat beste baten gainetik jartzen zuen pertsona. Amona zaintzea zen bere lehen-tasuna. Biziki maite zuen, eta hura ondo egon zedin saiatzen zen.

Ni aitarik gabe haztean, aitona aitaren pareko papera bete zuen nirekin. Are gehiago, lehegailuak eztanda egin zuenean, neu egon nintkeen bere ondoan. Berekin ibiltzen bainintzen batzuetan. Guardia zibil izateari utzita zegoen, eta andoaindar askori ehi-za eta arrantza baimenak lortzeko laguntza eskaintzen zion. Baita pasaporteak ere. Gure etxetik igarotzen ziren denak, ideologiak ideologia. Denei erantzun bera ematen zien: "Nire kontu, neu joango naiz Guardia Zibilarengana, ez zaitetz kezkatu".

Gero, askotan, dokumentazioa eramatera joaten ginen aitona eta biok baserri edota sagardotegietara.

Mansilla de las Mulas Leongo herrian jaio zen 1915ean, eta Francoren aldekoekin borroka egitea egokitu zitzaion. Orduan halabeharrez egin behar izaten zen. Garai haietan tropak gerturatu eta "gurekin zatoz, ala zurlora zoaz" adierazten zuten. Bi bandoetan berdinduta jokatu zuten.

Gerra amaituta, guardia zibil egin zen. Langabezian zegoelako, bestela, ez zen sartuko. Gure birraitona errepublikar petopetoa zen, defendatzaile sutsua. Harentzat, semeak Francoren aldekoekin borroka egitea gerta zekiokkeen okerreana izan zen.

1967an Andoainera etorri zen familiarekin, eta hasiera batean Andoaingo kuartelean bizitu ziren. Baina handik gutxira, guardia zibil izateari utzi zion; ETak hiltzeari ekin zionean, hain justu. Francok ETaren auzia Guardia Zibilaren parte-hartzearekin amaituko zela uste zuen. Baina aitona oso bestelako iritzia zuen.

Izebei entzunda ere badakit gure aitona ez zela batere gatazkatsua. Bere polizia ibilbidean, behin bakarrik ikusi zuten pertsona bat kolpatzen. Eta kamioilari bati emandako belarrondokoa izan zen hura, guardia zibilen zakurrari ostikoa eman ziolako.

Guardia zibil izateari utzita, Foru Aldundian hasi zen lanean. Ni jaio nintzenez, etxean diru premia zegoen eta orduan hasi zen baimen ezberdinak eta pasaporteak kudeatzen. Abertzalea zen andoaindar ugari aitona-rengana jotzen zuen. Batek baino gehiagok aitortu zidan aitona-aren atentatua ez zutela espero, ulergaitza egiten zitzaizela haren erailketa.

#### Zergatik uste duzu erail zutela zure aitona, 77 urte zituenean?

Espainiar estatuarentzat ehiza eta arrantza baimenak egiteagatik erail zutela uste dut, eta ez bereziki guardia zibila izan zelako. Ez dakit nor izan daitekeen hain ergela... Ez dut oraindik ulertzen zein izan zen bere deli-

## "AITARIK GABE HAZTEAN, AITONAK AITAREN PAREKO PAPER A BETE ZUEN NIREKIN"



2018ko irailaren 25 urte bete ziren Juvenal erail zutenetik. Ezkerrean, lehena, Oscar Villafañe. Blanca Izeba eskuinean ageri da, Mari Paz Artolazabal Jose Luis Lopez de Lacalleren alargunaren alboan. AIURRI

tua. 77 urteko aitona zen. Bestalde, ulertu gabe jarraitzen dut presoentzako onurak eskatzen dituzten pertsona berdinek lehergailuak jartzea.

Zein ziren erailtzeko erabiltzen zituzten irizpideak? Lopez de Lacalle, adibidez, min ematen zieten egia kontatzen zituelako. Eurek irabazi zuten jendearen gorrotoa, euren erailketa zentzugabe haiekin. Frankismoaren aurkako oldarraldia uler dezaket, Francok eragiten zuen erreprezioagatik. Baina historia gertatu zen bezala azaldu behar da, ez bakoitzari interesatzen zaion modura. Behin Franco hil zela, eta 2008. urtera arte, ETak jende asko erail zuen. Jendea hiltzeagatik independentzia lortuko zutela uste al zuten? Ez, euskaldunak eta katalanak ez dira sekula independente izango. Espainiak ez baitu hori inoiz onartuko. Espainiak hemen 60 urtez milioika euroren inbertsioa egin du. Euskadik eta Kataluniak Europarekin muga egiten dute, eta ez dute independentzia onartuko. Hori gertatuko balitz, gainera, Euskadik hankaz gora jar dezake Espainia. Espainiak hondo joko luke. Euskadik ez du Espainiaren beharrik, baina Espainiak bai; Espainiak Euskadi behar du.

#### Aitonak mehatxatuta egon zitekeela adierazi al zuen noizbait?

Gauza horiek antzemateko gaztegia nintzen, orduan. Izebari zerbait entzun izan diot, aitona

aurreko egunetan deseroso antzeman zuela. Beharbada mehatxatu egin zuten. Beti pentsatu izan dut Eskola kale inguruan zelatari bat egon zela. Oso eremu txikian Lopez de Lacalle erail zuten, Joseba Pagazaurtunduren ibilgailua erre zuten, auzoko hainbat pertsona mehatxatuta bizi izan zen... Informazio gehiagi.

#### Juvenal hil zutenean aitona-amonak, ama, bi izeba eta zu zeu Eskola kaleko etxebizitzan bizi zineten. Nola bizi izan zenuten galera hura?

Deskonektatzeko Santanderrera joan ginen, astebete igarotzera. Baina egonaldi hura infernua izan zen, bereziki gauean. Hurrengo zortzi hilabeteetan amesgaiztoak izan nituen, lehergailu madarikatu harekin lotuta. Horregatik oraindik ere petardoak jasangaitzak zaizkit, gaixotu egiten naute. Ez beldurra eragiten didatelako, eztanda bakoitzak aitona hil zuteneko egun hura burura ekartzen didalako baizik.

Atentatua eta gero, ikasten jarraitzeko gogoia galdu nuen. Akabo ia ikasi gabe nota bikainak ateratzeko joera hura. Soinketa ere ez nuen gainditzuten, eskolara joateari utzi egin niolako. Ikasten

## "20 URTE IZAN ARTE EZ NUEN AITAREN HERIOTZAREN BENETAKO GERTAERA EZAGUTU"

ari nintzen Andoaingo eskolan ez nuen laguntzarik jaso, nire egoeran zegoen gaztetxo psikologikoki artatzeko egon zitekeen irakaslerik prestatugabeena egokitu zitzaidan. Abertzale kutsuko ikasleak ere jasangaitzak egiten zitzaizkidan.

Lagun-taldearen erdiarekin harremana izateari utzi nion, nirekin zuten harremana eten egin zutelako. Senide baten galera pairatu eta gainera bizkarra eman zidaten lagun batzuek, hiltzailea banintz bezala!

Gure amona alargundu eta handik gutxira hil egin zen. Maria Angeles, nire ama, 2014an hil zen. Bitxia izan zen, biktimari zegozkion eskubideak urtarrilaren 26an eskuratu eta otsailaren 10ean hil baitzen. "Azkenean lortu dut biktima gisa dagozkigun eskubideak ematea, eta dagoe-neko joan naiteke", esanaz bezala. Hori pentsatu zuela iruditzen zait askotan. Carmen, nire izeba, ama hil eta urtebetera hil zen. Egunero pastillak hartzen zituen. Geuk geure baitan genuen amorru hura ez zuen adierazten berak. Egun, familia osotik, Blanca Izeba eta biok bizi gara.

#### Aitaz eta aitona askotan hitz egin al duzue etxean?

Ez dugu askorik hitz egin. Denek genekien zer gertatu zen. Nire amarentzat aitona bigarren kolpe modukoa izan zen. Biolentzia historia honetan amak sufritu zuen gehien; maite zuen gizona erail baitzuten eta, ondo-

ren, aita. Txikia nintzela aita istripu batean hil zela adierazi zidan. Ama batek egin behar zuena egin zuen; semea gorrotoaren bidetik uxatu. Ama abertzale batek baino gehiagok euren semei antzeko heziketa emanzen gero, beharbada ez zatekeen ETaren hainbeste atentatu gertatuko. Nire ustean, gatazkaren muina 36ko Gerratik sortu zen gorrototik dator. Gerra bizi izan zuten aitona-amonak askok, Espainiarekin zerikusia zuen edozer gauza gorrotatzen hezi zituzten seme-alabak. Seme-alaba horiek gauza bera egin zuten bilobekin. Badirudi, gaur egun, giroa baretzen ari dela hemen. Baina, bestalde, Katalunian 1980ko Euskadira itzultzen ari direla dirudi. Orduko akats berdina errepikatzen.

Nire aitaren erailketaren xehetasunak Errioxan bizi zen bere arrea baten bitartez jaso nituen. 20 urte izan arte ez nuen harekin sekula hartu-emanik izan, telefonoz deitu zidan arte. Egia oso gerora jakin banuen ere, amari ez nion sekula egia kontatu ez izana aurpegiratu. Ni babesteko egin zuela jakin badakit, nire baitan gorrotorik ez pizteko. Izan ere, bost urteko mutiko bati ezin zaio aita ETak erail diola esan. Lehergailu bat egitearen parekoa baita hori, eta ez dakizu nolakoa izango den 18 urterekin. Ez dakit, beharbada pistola bat hartu eta Herriko tabernan ager daiteke. Edo guardia zibil bihur daiteke, eta boterea eduki, plaka eskuratu, edonori bizitza txikitzeko.

Nik eduki dezakedan gorrotoa ez da abertzaleen aurkakoa. Abertzale diren betiko lagunak ditut, baina eurekin ez dut sekula politikaz hitz egiten. Nire aita eta aitona erail zituztenak gorroto ditut. Ez dut barkatzen, eta ez diet barkamenik onartzen.

#### Gertatutakoak gertatuta, Andoain uztea pentsatu al zenuen?

Urteen poderioz gogortu egin naiz. Hemen bi aukera daude: Alde egin, joan..., edo bertan geratzen bazara, gogortu egiten zara. Bizitzak aurrera egiten irakatsi dit, eta inoren menpeko ez izaten.

## "5 URTEKO MUTIKO BATI EZIN ZAIO AITA ETA-K ERAIL DIOLA ESAN. AMAK NI BABESTEKO EGIN ZUEN"



Gogoan dut ibilgailuaren bila joan, eta burura zetorkidalako, giltzak lurrera erortzen utzi eta kotxearen azpialdea begiratu izana. Ez ohituraz, hori bospasei aldiz egingo nuen. "Aita erail zuten, aitona ere bai..., eta zergatik ez dira nire bila etorriko?", nioen orduan. Anormal horiek ez zuten aitzakiarik behar, biktima baten oinordekoa izatea aski izan zezaketen.

Andoain utzi izan dut, tarteka, baina ez terrorismo kontuengatik; lan arrazoiengatik baizik. Emaztea Kubakoa da eta beharbada egunean batean Kubara joango gara bizimodua ateratzera, bertan negozio txiki bat ipiniz. **Zein iritzi duzu elkarbizitzarako egitasmoen inguruan eta biktima ezberdinen artean egin diren elkartze-ariketez? Erakundeek sustatu dituzte, besteak beste, Andoaingo Udalak. 2018ko abenduan, esaterako, "Memoria partekatu baterantz" txostena argitaratu zen Andoainen...**

Ez da erakundeen gauza bat. Adeitsu izatera behartuko gaituzte, ala? Espainiar itxia eta ergela dena berean gotortuko da, eta gauza bera egingo du Espainiak lapurtu egiten gaituela, kaka bat dela eta erailteza ondo dagoela pentsatzen duen aberzale itxiak.

Nik arazoa aitonari lehegailua jarri ziotenarekin daukat, eta baita aitaren aurka tiroka ekin zuenarekin ere. Gainerako aberzaleekin ez dut arazorik. Aberzale diren adiskide piloak dut Andoainen, eta bizitza osoan herri berean elkarrekin bizi izan gara. Denekin elkarbizitza landu behar dela onartu beharra dago. Beharbada horietako batzuk noizbait onartu beharko lukete Euskadin independentziarekin batere ados ez dauden pertsonak daudela, eta ez dutela abertzaleen bizimodua gogoko.

Elkarbizitza ez dago erakundeen esku, jendearen esku baizik. Eta hala eta guztiz ere, bi belaunaldi beharko dira. Zeren eta nire belaunaldikook gaizki pasa dugu, mina jasan dugu, eta hori ez da ahazten. Hurrengo belaunaldiei mespretxu hori gabe bizitzen

**"MIN EMANGO DIO NORBAITI, BAINA LAGUNDU GAITUEN ERAKUNDE BAKARRA GUARDIA ZIBILA DA"**

## Lehen galera Villafañeren etxean

DOMINGO MERINO AREVALO OSCARREN AITA



**1978/7/5. ZARAUTZ. KALEAN TIROKATUTA HIL ZUTEN.**

Garai hartan bizilekua zuen hotelaren parean tirokatu zuten, autoa aparkatzen ari zela. Zestoan egin zen hileta elizkizuna; ondoren, bertan lurperatu zuten. ETak hilketa bere gain hartu zuenean, Merinori Guardia Zibilaren kolaboratzaile izatea leporatu zion. Hurrengo egunetan, ABC egunkariak Estanislao Treku bere adiskidearen adierazpenak jaso zituen; hark gezurtatu nahi izan zuen Txomin konfidentea zenik.

28 urte zituen Merinok, ETak erail zuenean. Arevalo herrian (Ciudad Real) jaio zen, baina

zortzi urte zituenan gurasoekin batera Zestoara etorri zen bizitzera. 1973an atxilotu egin zuten, propaganda subertsiboa banatzea eta diru faltsua edukitzea leporatu zioten, eta ia bi urte preso egin zituen Jaen, Madril, Logroño eta Martuteneko presondegietan.

Ehun-saltzailea zen lanbidez. Ezkonduta eta banatuta zegoen garai hartan, eta sei urteko alabaren aita zen. Maria Angeles Villafañe Campo bere bikotea zen, eta haurdun zegoen hilketa gertatu zenean. Are gehiago, harekin egon eta gero tirokatu zuten.

Emaztegiak uztailean bikotekidea galdu, eta irailean jaio zen Oscar. Haurrak ez zuen aita ezagutzeko aukerarik eduki, beraz.

OSCARREN HAUSNARKETA:

**"EGIA OSOA HOGEI URTEREKin JAKIN BANUEN ERE, AMARI EZ NION SEKULA EGIA KONTATU EZ IZANA AURPEGIRATU. NI BABESTEKO EGIN ZUELA JAKIN BADAKIT, NIRE BAITAN GORROTORIK EZ PIZTEKO. IZAN ERE, BOST URTEKO MUTIKO BATI EZIN ZAIO AITA ETA-K ERAIL DIOLA ESAN. LEHEGAILU BAT EGITEAREN PAREKOA BAITA HORI, ETA EZ DAKIZU NOLAKOA IZANGO DEN HEMEZORTZI URTEREKin".**

## Bigarren galera Villafañeren etxean

JUVENAL VILLAFANE GARCIA OSCARREN AITONA



**1993/9/16. ANDOAIN. LEHEGAILUA JARRITA HIL ZUTEN.**

Makaldegiko aparkalekuan, autoan jarri zioten lehegailu batek oso zauri larriak eragin zizkion. Oraindik bizirik eraman zuten Arantzazuko ospitalera, baina berehala hil zen. Hileta Andoaingo San Martin elizan egin zen, eta bere emaztearen jaioterrian Islares herrian (Kantabria) lurperatu zuten.

Villafañek 77 urte zeuzkan hil zutenean. Leongo Mansilla de las Mulas herrian jaio zen, familia errepublikar batean. Gerrak soldaduska egiten harrapatu zuen eta Francoren troparekin egin zuen borroka. Eta orduan

luzatu zioten guardia zibil gisa aritzeko eskaintza. Gerra bukatuta, jaioterrira itzulita, panorama tristea topatu zuen: Gosea, miseria, lanik eza..., eta guardia zibil sartzea erabaki zuen.

Juvenal Villafañek Andoaingo kuartelean urte bakan batzuk egin ostean, Aldundian hasi zen lanean, funtzionario gisa. Bertan hartu zuen erretriroa hamar urtetan jardun ostean, eta harrezkero burokrazia ofizialari lotutako agiritegiak (arma eta ehiza lizentziak, pasaporteak...) egiten zituen; Andoaingo hainbat herritarrek "Sarjento" ezizenez ezagutzen zuten, eta hainbat tramite ofizial egiten laguntzeko harengana jotzen zuten.

OSCARREN HAUSNARKETA:

**"MAKALDEGIRA JAITSI ZEN IBILGAILUA ETXE ONDORA GERTURATZERA. ETA HANTXE GALDU ZUEN BIZIA AITONAK, ETXEAN BIZI GINEN GAINERAKOOK EZ BEZALA. IZAN ERE, HORI OSTEGUNAREKIN GERTATU ZEN, BAINA IGANDEA IZAN BALITZ ZER? NIRE URTEBETETZE EGUNA ZEN ETA BEHARBADA, AUTOA HARTU ETA OSPATZERA JOANGO GINEN. PERTSONA BAKARRA LEHERTU BEHARREAN, DENAK LEHERTUOKO GINATEKEEN ORDUAN".**

irakatsiz gero, elkarbizitzan sarkontzen hobeto asmatuko dute. **Zein da erakundeen aldetik biktima modura jaso duzuen erantzuna?**

Espainiar Estatuarekin ez nago inondik inora pozik, ez dut esker oneko hitzik. Horregatik, Espainiako Estatuak edo Eusko Jaur-laritzak omenaldiak antolatzen dituenan, ez naiz joan ere egiten. Urte askoan mespretxatuta sentitu naizelako. Ez dut lau urtero emango didaten animozko mezu faltsurik nahi, zeren eta jarraian burokrazia martxan jarri eta ez dizute deus ematen.

Guardia Zibilak edo COVITEK egiten dituen omenaldietara agertzen naiz. Guardia Zibila aipatu, eta bati baino gehiagori min emango diodala jakin badakidan arren, benetako laguntza eskaini digun erakunde bakarra da.

**"ERAKUNDEEK OMENALDIK ANTOLATZEN DITUZTENEAN, EZ NAIZ JOAN ERE EGITEN"**

Aitonaren erailketaren 25. urteurrenean Andoainen ekitaldi berezia antolatu zen, eta esker onekoa izan nahi dut. Bereziki gugandik gertu egon zirenekin. Euren artean, Mikel Arregi, Jose Luis Vela eta Maider Lainez nabarmendu nahiko nituzke.

ETAren biktima modura dagokidan aitortza 36 urterekin lortu nuen, erailldako pertsona baten semea izateagatik. Eta hori kasua epaitegiatara eraman eta gero lortu nuen. Domingo Merinoren semea nintzela ziurtatzen zuten frogak aurkeztu behar izan

nituen, gurasoak ez zeudelako ezkonduta. Aitonari dagokionez, ez naute biktimatzat hartzen gu bion artean belaunaldi bat dagoelako. Biloba naizelako. Erakundeetatik etengabe entzungo duzue biktimen alde lanean ari direla..., baina hori gezurra da!

**"ERAKUNDEETATIK ENTZUNGO DUZUE BIKTIMEN ALDE LANEAN ARI DIRELA..., HORI GEZURRA DA!"**



IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

## Arreta jar diezaiogun gure artean bizi den biktimari

Denboran luze jo duen saiakera batek argia ikusi du, aste honetako Aiurri. Villafañe familia orrialde hauetara ekarri nahi izan genuen, aspaldi. 2018ko irailean 25 urte bete ziren ETAk Juvenal 77 urteko herrikidea hil zuenetik, auto-bomba erabilita. Efemeridearen harira, Blanca alabarekin saiatu ginen. Ez zen posible izan. Baina ez genuen etsi eta, informazio gehiago bilduz joan ahala, Villafañeren kasuari arreta berezia zor zitzaiola ondorioztatu genuen. Zerk egiten du kasua berezi? Informazioa lantzen ari ginela ezusteko datuarekin topo egin izana: Oscar Villafañe Merino, Blancaren iloba, ETArekin biktima bikoitza da. Kasu bakanetakoa da, Euskal Herrian. Andoaindarrentzat Juvenalen biloba da, eta aitaren historia ezezaguna da erabat.

Zorigaiztoko egoera hori gizarteratu beharra dagoela uste dugu, bizilagun eta herrikide direnek bere historia ezagut dezaten. Oscar ez baita inoiz ezkutatu, Andoaingo herritar bat gehiago da. Eta halaxe izaten jarraitzen du, bertan bizi baita. Ez du, gainera, sorterrria uzteko inongo asmorik. Hari egindako elkarrizketa irakurtzea ariketa deserosoa egingo zaio bati baino gehiagori. Baina beharrezkoa da, gatazka alde batera utzi eta elkarbizitzan sakondu nahi badugu.

Kasu hau argitara eman arteko ibilbidea azalduko dut, segidan. Juvenal aitona aipatzen hasi beharko genuke. 1960ko hamarkadan guardia zibila izan zen. Baina erretiroa hartu arte, Aldundiarentzat lan egin zuen. Hiru alaba izan zituela, eta hiruretatik bakarra bizi zela bagenekien. Blanca izena du, eta urtero Elkarbizik antolatzen duen Memoria Eguneke lore-eskaintzan parte hartu ohi du. Harengana hurbildu ginen, 2017ko azaroan, eta elkarrizketa egiteko aukera eskaini genuen. Ez zuen oso garbi ikusi, baina bitan saiatu ostean, elkartzeko prest agertu zen. Solasaldia izan zen, elkarrizketa baino gehiago. Elkartze hartatik orrialde osoko artikulua prestatu eta bi bertsio utzi genituen haren esku. Bata, euskaraz. Eta, bestea, gaztelaniaz. 2018ko urtarriletik irailera bitarte, haren erantzunaren zain egon ginen. Herritarrari begira balio handikoa zela uste genuen, iraganean hainbeste sufritu zuen familiaren ahotsa entzutea ariketa aberasgarria zelakoan. Azkenerako, bederatzita hilabete eta gero, ezezkoa erantzun zigun. "Ez dakit komeni den gu betirako izatea biktimak...", argitaratu gabeko elkarrizketa haren pasarteetako bat zen. Argigarria.

Bizimodu lasaia eta apala darama Blanca Villafañek. Eta oso errespetagarria da hedabideetatik aldentzeko erabakia.

2018ko iraila zen, eta Juvenalen aurkako atentatuaren 25. urteurrena ganean zegoen. Elkarrizketa argitaratzeko baimenik gabe, gertaera hari buruzko erreportajea egitea erabaki genuen. Informazioa lantzen hasi ginela, ustekabean, internet sarean Diario de León egunkariko artikulua bat topatu genuen. "Gogorra da, baina gogor izaten ikasi egiten da" izenburupean, Oscar Villafañeri egindako elkarrizketa irakur zitekeen. Domingo Merino Oscarren aitaren aurkako atentatua aipatzen zen bertan, nahiz eta artikulua pasarte handiena aitona buruzkoa izan. Biktima bikoitza zela irakurtzean, dei ezberdinak egin genituen. Eta orduan jabetu ginen Andoain erabat ezezaguna zela Oscarren biktima bikoitzaren izaera hori.

Blanca Villafañe 25. urteurreneko omenaldi ekitaldi berezira hurbildu zen. Baita,

**OSCAR VILLAFANE MERINOK AIURRI ASTEKARIARI ESKAINI DIO LEHEN ELKARRIZKETA LUZEA**

orduko hartan, Oscar Villafañe ere. Ekitaldian bertan luzatu genion Oscarri elkarrizketa egiteko gonbitea. Ez zuela bere burua egoera horretan ikusten, horixe izan zen lehen erantzuna.

Urtebete geroago, 2019ko irailean, elkarrizketa laburra eskaini zuen COPE irratiari. Ez genuen etsi, eta saiakera berria egin genuen. Oraingoan bai, gurekin elkartzeko prestutasuna adierazi zigun.

Oscar Villafañe Merinok Aiurri astekariari eskaini dio lehen elkarrizketa luzea. Kazetaritza dir-dir berezia egiten duen "primizia" horrek itsutu beharrean, denbora eman genion elkarri. Ez zegoen presa berezirik, kasua behar bezala argitaratzeko borondatea baizik. Bizitza diskretua badarama ere, Oscarrek oraingo honetan erakutsi du. Aiurrik Andoain aldean irismena baduelako. Bere mezua dagokionari iritsiko zaiolako. Hots, bizikide duen andoaindar orori. Erredakzio taldetik, horrexegatik, eskertza adierazi nahi diogu.

Dagoeneko hil zaizkion aitona, amona, aita, ama, izeba... Galera horiek guztiak hizpide izan ditugu. Deigarria da, hain gaztea izanik, ia familia osoa hilik edukitzea.

Bakardade horrekin batera, deigarria egin zaigun beste errealitatea biktima modura

bizi izan duen sufrikarioa da. Aita eta ama ez zeuden ezkondu. Beraz, familia-agiririk gabe, Oscar ez zen ofizialki biktimatzat hartu. 1978an jaio zen Oscar, eta epaibide luzea igaro zuen harik eta 2014an biktima ofizialtzat hartu zuten arte. 1993an, aitaren funtzioa betetzen zuen aitona galdu zuenean ere, Oscar ez zen biktimatzat hartu. Biktimen Legeak, biktima izendatzeko, soilik lehen belaunaldia kontuan hartzen duelako. Juvenal aitona aitaren papera bete bazuen ere, legeak ez ditu gauza horiek ulertzen. Antza denez, ezta legeak bideratzeko gaitasuna duten teknikariek eta politikariek ere. Alde horretatik, oztopoz beteriko bizitza izan du. Bizipen horien eraginez, elkarrizketan zehar erakundeen inguruan aho-bilorik gabe hitz egiten du. Gogor, eta zorrotz.

Elkarrizketa argitaratu baino lehen, behin baino gehiagotan elkartu ginen berekin. Lehenengo elkartzeko hartan kontaketa gordina egin zuen. Kazetari batek sekula ahazten ez duen saioa izan zen. Gerora, lehen bertsio gordin hura arindu egin zuen.

Herrikidea buruan duen solaskidea izan da Oscar. Ezagutu dezagun bere historia, gatazkak gogorki kolpatu duen historia.



**Telegram erabiltzailea al zara?  
"Aiurri Andoain" kanala bila ezazu, eta jarrai gaitzazu**

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

**ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!**

**www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram**





## KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



## POSTONTZIA

HURRIA-SAHARA ANDOAIN

## Sahararen aldeko elikagai bilketa

Andoainen abian da Sahararen aldeko eligaien bilketa, Hurria-Sahara elkarteak Santomas egunarekin batera kanpainari ekin zionez geroztik. Informazio mahaiak jarri genituen egun hartan, kanpainaren berri emanez eta oraindik ere eskuragarri dauden egutegiak salduz.

Urtarrilaren 24a bitarte iraungo du bilketa kanpainak. Hurrengo egunean, Andoainen biltzen den jenero guztia Sahararen aldeko 16. "Piztu Itxaropena" karabanaren esku utziko da.

Hauexek dira bildu behar diren elikagaiak: hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, patata, arroza, azukrea, lekaleak. Halaber, nongo erostokietan utzi daitezkeen esan dute: Coviran (Karrika auzoa), Jauregi (Etxeberrieta kalea), Eroski (Zumea plaza), BM (Plazaola kalea), Telletxea (Rikardo Arregi kalea), Ondarreta (Ondarreta kalea) eta Super Amara (Gudarien etorbidea).

Kanpaina Andoaingo ikasteetxetara luzatu da, hots, La Salle Berrozpe, Ondarreta, Aita Larramendi ikastola, Leitzaran institutua, Escivi zine eta bideo eskolara eta baita Galardi Haur Eskolara ere.

Hurria-Sahara elkartetik urtero azpimarratu izan dugu Andoaingo herritarrek

erakutsi izan duten elkartasuna, eta ziur da tamainakoa izango dela aurtengoa ere. Iaz, esate batera, elikagaietan 8.550 kilo bildu ziren, eta kopuru horri gehitu zitzaion 84 litro oliotan, 59 kilo konpresetan eta 43 kaxa botiketean.

### "Piztu Itxaropena" Euskal karabana

"Otsailak 27" Euskal Elkarteen Koordinakundeak gogorarazi duenez, euskal karabanak otsaila aldera Tindufeko (Aljeria) basamorturako bidea hartuko du, eta bertan babestuta dauden 260.000 errefuxiatu sahararrei bideratuko zaizkie jakiak.

Adierazi duenez, "Saharar errefuxiatuek elikadura aldetik segurtasunik ez izateak ondorio latzak dakartza herritarren bizitzakalitatean, osasunari dagokionean batez ere; desnutrizioak eragindako patologiak nagusitzen dira eta beste gaixotasun batzuei aurre egiteko gaitasuna murrizten da. Errefuxiatuek Tindoufeko kanpamenduetan

**IAZ, ANDOAINGO HURRIA-SAHARAK SUSTATUTA, 8.550 KILO BILDU ZIREN ELIKAGAIETAN**

bizirik irauteko ezinbestekoa da kanpotik datorren laguntza".

Sahara herrialdeko gaztakaren jatorria gogorarazi du Koordinakundeak, historian atzera eginez: "1975ean Madrilgo gobernuak Marokoren eta Mauritaniaren artean banatu zuen Mendebaldeko Sahara. Urte bereko urrian, Marokok "Martxa berdea" izeneko jarri zuen abian. Horrelaxe hasi zen, Maroko eta Mauritaniaren aldetiko inbasio militarra eta, horren ondorioz, saharar herritar askoren ihesaldia, marokoar hegazkinek jaurtitako napalm eta fosforo zuriaren pean. Egoera horretan, Fronte Polisarioak aurre egin zion Marokor okupazioari eta herritarren ihesaldia antolatzeaz gain, errefuxiatuak



Hurria-Sahara elkarteko kideak, aurtengo kanpainan. AIURRI

kanpamentuetan kokatzeaz ere arduratu zen, Aljeriako Tindufeko basamortuan hain zuzen ere". Egun, errefuxiatuen

kanpamentuetan emakumeak eta umeak bizi dira gehienbat; gizon gehienak askatutako eremuetan mobilizatuta daude.



**Aiurri eskuragarri:**  
Ebezez etxeko harpidetza-sistema. Andoain urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**  
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain  
Tel.: 943 300 732  
Faxa: 943 300 731  
andoain@aiurri.eus  
www.aiurri.eus

**Zuzendaria:** Jon Ander Ubeda.  
**Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.  
**Maketatzailea:** Maddi Trutuelo.  
**Kudeaketa, harpidetza:** Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus  
**Publizitatea:** Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus  
**Banatzaileak:** Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urmietan).  
**Diseinua:** Goiena Komunikazio Taldea  
**Zorion agurrak, merkatu txikia:** diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus  
Whatsapp: 619 163 537  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.  
**Inprimategia:** Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: **ERROITZ**

ALJATUAK: **TOKIKOM**

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

**ANDOAINGO UDALA**

**Urmietako udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
Hizkuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:

**Bikán**

BABESLEAK:

**Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

# "Pentsioak %0,9 igotzea ez da nahikoa"

**XABIER ETXEBERRIA** DUINTASUNA JUBILATU ETA PENTSIODUNEN ELKARTEKO KIDEA Andoingo asteleheneroko bilkuren deitzaileetako izateaz gain, animatzaile nagusia da. Gitarra eskuan, elkarretaratzea girotzeko ahalegina egiten du

**Xabier Lasa** ANDOAIN

**Astelehenero biltzen jarraitzen duzue, eta zuri taldeko animatzailea izatea egokitzen zaizu.**

Pankartaren atzean ordu erdiz isil-isilik egotea triste samarra iruditzen zitzaidan, eta soinu-ekipoa eta gitarrarekin agertzen naiz, pentsioei buruzko idatziak irakurtzen ditut, esloganak zabaltzen edo nahi duenak nahi duena adierazteko gonbitea lutzaten. Tarteka abesti-protestak (Txoria txori, Bella Ciao...) abesten ditut. Ez zait kostatzen abestea, nahiz eta ahots kaskarra eduki. Jendea ez zait kexatu, oraingoz...

**Bi urte betetzera doa asteleheneroko hitzordua. Nekea nabaritzen al da jendearen aldetik?**

Egia da jaitsi egin dela biltzen garenen kopurua. Ez dakit zergatik ote den, protesta egiteko makina bat arrazoi baitaizkagu, ez pentsiodunek bakarrik, gizarte osoak baizik. Ez da sakrifizio handiegirik eskatzen, astean ordu erdiz biltzea. Pozgarria da zenbait herritar erakusten ari diren tinkotasuna. Baina aldi berean, kritikoa izan behar gara beste askoren utzikieragatik. Zenbait pentsiodunen jarraera, hasteko; pentsio duinak dauzkatela pentsatuta, badira elkar-tasun keinurik agertzen ez du-



Xabier Etxeberria. AIURRI

**"PENTSIODUNA IZAN, ALA GAZTEA IZAN, ELKARRETARATZEKO DEIA GUZTIEI LUZATUKO NIEKE"**

tenak, eta badira *aprobetxategiak* ere, besteen borrokari esker baliatzera ohitu direnak. Bestalde, herrian milatik gora langabetu badirela diote estadistikek, baina kolektibo hori ere ez da plazara agertzen.

**Argi dago etorkizunean Goikoplazara hurbiltzeko deialdia luzatuko zeniekela herritarrei.**

Bai. Komunikabide handiei kasu eginez gero, badirudi astelehen goizetan hiriburuetan bakarrik egiten direla elkarretaratzeak, eta Bilbon batez ere. Baina begiratu Gipuzkoara luzatzen baduzu amaigabea da zerrenda, Lasarte-Oria, Amasa-Villabona, Hernani, Tolosa, Beasain... Izan pentsiodun, izan gazte, izan langile, izan langabetu... guztiei luzatuko nieke gonbitea, ahal dutenetan Goikoplazara azaltze-

ko. Denoi dagokigu desadostasuna agertzea.

**Gobernu berriak, dekretuz, erretiro-pentsioak % 0,9 igotzea onartu du egunotan.**

Pauso bat da, baina ez da nahikoa. 2020ra begira bakarrik hartu du erabakia; ez dakigu urterokoa izango den KPiren (Kontsumoko Prezioen Igoera) arabera. Eta ez du deusik aipatu edozein pentsiodunek bizitza duina egiteko 1.080 euroko eskaeraren gainean. Lan erreformei buruz egindako adierazpenek ere ezin gaituzte ase: Beti herritarren kalterako izan diren lan erreforma guztietatik soilik azkenekoa ukitzeko asmoa agertu dute, eta gainera, bere zenbait artikulua erretiratuko omen dituzte, ez guztia.

**Urtarrilaren 30erako greba orokorra deitua dago. Zenbait sindikatuk eta pentsiodunen kolektiboaren zati batek ez du deialdia ondo ikusi.**

UGT eta CCOO sindikatuena normalizat jo daiteke zorritzarez, horien goi organoek aspalditik gobernuen dietekin bizitzera ohitu baitira. Bestalde, pena ematen dit pentsiodunen artean gertatu den zatiketa. Ezezkoek argudiatu dute batu ezinak direla pentsiodunen aldarrikape-nak eta langileenak, sektoriala behar duela izan borroka. Ikuspegi murrizta dela iruditzen zaigu hori, dena baitoa kateatuta, lan prekarietatea, soldata baxuak, pentsio eskasak... Lege injustuek herritar guztien ongizatea kaltetzen dute eta guztiok batuta erantzun beharko genieke. Frantziako herritarren eredu hartuko nuke gogoan. Han lan eta gizarte munduko sektore guztiek bat eginez erakutsi digute protestek eta mobilizazioek agintariengan eragina daukate-lan.

HAU ERE BADUGU!

**Albisteak Telegram bidez jarraitzeko aukera**



Telegramen erabiltzaile kopurua handituz doa, etengabe. Aiurrik, proba modura, Andoingo albisteekin kanala ireki du. Irekia da, eta bertan izena emanez gero, Andoingo albisteen berri jasotzeko aukera dago.

**Neguko irudi ikusgarriak**



Ilargi betearekin batera, egun eguzkitsuak igaro dira. Hainbat erabiltzailek argazki ikusgarriak eskegi dituzte, sare sozialetan. Julen Lorentzok parte hartze handia du "Andoaindarras y punto" Facebook orrialdean, eta bertan Karrika aldeko irudi sorta ikusgarria eskegi zuen.

**Azkortera bidean trabatuta**



Aurreko ostiralean kamioi bat Azkorteko ermitako bidean trabatuta geratu zen. Urnietako Udalak eman zuen gertaeraren berri. Kuluxka enpresaren garabi baten laguntzaz atera zuten ataka estu horretatik. Atzetik heldu eta piskanaka, atzera buelta egitea lortu zuten. Ez ohiko gertaera izan zen Udaltzaingoa erantzut, eta inguruko bizilagunentzat.

## Andoingo inauteriak

Otsailaren 20an ospatuko da ostegun gizona, eta Andoainin otsailaren 23ra bitarteko egitaraua osatzen ari dira. Lehen bilera egin eta gero, bilera berria deitu dute. Datorren urtarrilaren 21ean izango da, iluntzeko 19:00ta hasita. Urigainen izango da. Karroza prestatzeko premian dagoen taldeak ahalik eta azkarren jakinarazi behar du.



AIURRI



**andoainDARRA**  
euskaraz



# "Istorioak kontatzeko beharra eduki dut beti"

**IKER CASADO** ANDOAIN LABURREAN BIDEO LEHIAKETAKO PARTE-HARTZAILEA  
Andoain Laburrean bideo lehiaketako azken hiru edizioetan hartu du parte Iker Casadok, eta hiruretan epaimahaiak bere lana saritu du

## Olatz Lasa ANDOAIN

Andoain Laburrean bideo lehiaketaren bosgarren edizioa da honakoa. Urtarrilaren 30 arte aurkeztu daitezke lanak, eta sari banaketa ekitaldia datorren otsailaren 13an izango da, Bastero Kulturgunean. Iker Casado andoaindarrak parte hartze ezberdinetan sariak lortu izan ditu. Zehazki, honako lanekin: 'Bidearen bukaera', 'Andoaingo guduaren egunerokoa' eta 'Zein da Tino?'. Lan horiek guztiak Andoaingo Udalak Youtuben duen kanalean ikus daitezke. Baita gainerako saridunenak ere.

## Aurtengorako ba al duzu ideiarik buruan?

Idea badaukat, baina ez dut denborarik hartu. Proiektu askotan nago murgilduta, eta ez dakit denbora edukiko dudan. Hala ere, urtero azken astean egin izan dut, lagunartean. Ideiak gorputza hartzen badu, saiaturko naiz. Ea zer ateratzen den.

## Zein elementu eduki behar ditu bideo batek Andoain Laburrean bideo lehiaketa irabazteko?

Egia esan, ez dakit. Irabazi genuen bigarren urtean bi bideo aurkeztu genituen. Gerrate karlistaren eguneroko bat iritsi zen nire eskuetara, eta bi laburmetraia egin nituen. Bat, serioagoa elkarrizketak eginez; Eta, bigarrena, gerrate karlistan bi homosexualen kasuan zer gertatuko ote zen kontatzen zuen laburmetraia zen.

Sari banaketa ekitaldira arte ez dakigu nork irabaziko duen, eta irabaztekoan pentsatzen nuen fikziozko horrekin izango zela. Lagunei esan nien irabaziz gero sagardotegira gonbidatuko nituela. Irabazi genuen, baina beste laburmetraiarekin. Hortaz, ez dakit zehazki zein elementu behar diren lan irabazlea egite-rako garaian.

## Besteen lanetatik ezberdinagoa izateagatik, agian...



Iker Casado Aiurriko egoitzan elkarrizketa egin ostean. AIURRI

Izan daiteke. Ez dago jakiterik gainontzekoak zertan ari diren lanean. Azkenean, ondo pasatzeko egiten dugu. Sari banaketan gainerako parte-hartzaileekin hitz egiten dugu, barreak egiten ditugu. Hori polita da.

## Aipatu duzu lagunartean egiten dituzula bideoak. Hori ere izan daiteke zure bideoen gakoetako bat?

Elkarrizketa niri ari zarete egiten, baina hiru laburmetraietan lantalde berdina izan da, lagun berdinek lagundu didate. Sakrifizio handia eginez, gainera. Karliten laburmetraia kasuan, esaterako, 12:30ean ateratzen ziren lagunak lanetik, eta 14:00etan berriz sartzen ziren lanera. Denbora horretan grabazioak egiten genituen. Leitzaran bailarara joan, karlisten arropa jantzi..., Sakrifizio handia izan zen, eta eskertzen diet, beraiek gabe ez litzatekeelako ezer aterako.

## "SARI ONENA GEUK EGINDAKO LABURMETRAIA PANTAILA HANDIAN IKUSTEA IZAN DA"

Idea neurea izaten da, eta ondoren, grabazioaz eta muntaiaz arduratzen naiz. Baina jenderik gabe, ez da bideoarik ateratzen.

## Oro har, nolako maila ikusi duzu Andoain Laburrean bideo lehiaketan?

Gauza oso interesgarriak daude. Iazko bideo batean Aita Larramendiren pertsonaia oso ondo landuta zegoen. Irudi oso potenteak egon ohi dira. Epaimahai-kideen arabera, irizpide batzuk edo besteak hartzen dituzte gehiago. Gidoia edo alde teknikoa, adibidez.

## Zer eskaintzen dio herriari Andoain Laburrean lehiaketak?

Lehenik, oso positiboa iruditzen zait euskaraz egitea. Badirudi zure laburmetraia mugitzea nahi baduzu, gazteleraz egin behar dela. Baina, ez. Eta horregatik positiboa iruditzen zait. Euskaraz ere laburmetraiak egin daitezke, eta ondo gainera.

Basteron badakigu antzerkiak, filmak eskaintzen direla. Eskaintza badago, eta aldi berean, herri mailan horrelako lehiaketa egitea positiboa iruditzen zait. Eskatzen hasita, sari banaketa ekitaldira jende gehiago bertaratzea gustatuko litzaidake.

## Gazteak aipatu dituzula, teknologien munduan erabat murgilduta daude orokorrean. Zein dira, oro har, gazteek bideoak kontsumitzeko erabiltzen dituzten plataformarik nagusienak?

Gazteenaak nik uste sare sozialetan egongo direla murgilduagoak, Instagramen batez ere, eta YouTuben. Plataforma horretako bideoak azkarrak dira, izenburu erakargarriak izan ohi dituzte. Adinean aurrera joan ahala, Netflix moduko plataformetan ikusten ditu jendeak, filmak nahiz telesailak. Indarra hartzen doaz, eta ondo iruditzen zait.

Lehen filmak pirateatuz, zinema edo telebistan ikusten genituen. Egun Netflixen dauden film eta telesail guztiak ikusteko denborarik ez du ematen. Eta hori positiboa iruditzen zait. Oreka lortu da, ordaintzen denaren eta bezeroa gustura egotearen artean.

## Nondik datorkizu bideoak lantzeko zaletasuna?

Txikitatik eduki dut kamera eskuan, ez dakit zergatik. DBHn nire lagunak zein ikasketa egin ez zekitenean, nik banekien mundu horretan egon nahi nuela. Hasieran aktorea izan nahi nuen, baina urteak pasa ahala pentsatu nuen aktorea zertarako? Istorioa kontatzen duen pertsona atzean dago, ez dago kamera aurrean.

ESCIVI zine eta bideo eskolan ikasi nuen, eta gero Madrilera joan nintzen master bat egitera. Egia da ez dudala dirurik irabazten horrelako gauzak egiten. Ez da nire lana, baina zaletasun handia dut. Bizitza osoa daramat bideoak egiten. Beti eduki dut istorioak kontatzeko beharra. Ez badituz ateratzen, beti nago istorio horrekin bueltaka. Ateratzen ditudan arte.

## Elkarrizketa amaitzeko, zein abiapuntu emango zenieke lehiaketan parte hartu nahi dutenei, baina nondik hasi ez dakitenei?

Lagunekin kafe bat edo garrardo bat hartuz, hitz egin dezatela ideia horri buruz, barreak ere botaz... Ideia joango da gorputza hartzen. Jakin behar da muga non dagoen antzematen, noraino grabatu daitekeen, non, zein efektu berezi jarri nahi diozun...

Gure kasuan, saririk onena laburmetraia pantaila handian ikustea izan da. Aholku gisa, horixe, ongi pasatzea.

## Andoain Laburrean lehiaketa

Andoaingo Udaleko Euskara Sailak eta ESCIVI Andoaingo Zine eta Bideo Eskolak elkarrekin antolatutako lehiaketa da, "Andoain Laburrean". Bosgarren edizioa izango da, aurtengoa. Lehiaketa ezaguna eta maila handikoa da, epaimahaiakide ezagunetz osatua.

16 urtetik gorako andoaindarrei zuzendutako lehiaketa martxan dago jada, eta lehiakideak aste hauetan prestakuntza lanetan ibiliko dira. Izan ere, bideo lehiaketan parte hartzeko epea laster amaituko da. Urtarrilaren 30ean, hain zuzen.

Bideoari dagokionez euskarazkoa izatea ezinbestekoa izango da. Horrez gain, gaia librea dela. Ez da beharrezkoa, gainera, Andoaingo herrigunera mugaturik egon behar.

Lehiaketara aurkeztzen diren lanak My Air Bridge aplikazioaren bidez helarazi behar dira, horretarako euskarazerbitzua@andoain.eus posta elektronikoa aipatuta. Udaletxeko azken solairuan dagoen Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan ere aurkez daitezke lanak, goizeko 08:30etik eguerdiko 14:00ak arte.

## Hiru sari

Lehenengo hiru sailkatuentzat diruz hornitutako sariak banatuko dituzte: 400, 200 eta 100 euro, hurrenez hurren.

Epaimahaiari dagokionez, aurtengoa honakoek osatuko dute; hala nola Uxue Jimenez argazki zuzendari laguntzailea, Aitor Goenaga kamera operadorea eta Gaizka Izagirre telebista eta serieen kritikaria.





Mikel Guirado, Aitor Arruti eta Unai Ormaetxea, Bastero Kulturgunearen kanpoaldean. AIURRI

# Artista gazteen erakusketa

Mak Jürgen (Mikel Guirado) eta Aitor Arruti argazkilari gazte andoaindarren lanak erakusgai daude Basteroko erakusketa gelan, datorren urtarrilaren 24a bitarte. Atzerriko egonaldiak eragin zuzena izan du bi artista gazteen lanetan

## Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo hamabost bertsolariekin elkarlanean osatu du erakusketa Arrutik; Islandiako itsasargiak topatzeko bidean edukitako emozioek bideratu dute Jürgen en irudi sorta. Nork bere proposamen artistikoak aurkeztu arren, bi argazkilariak kohesioa landu dute Basteroko arte-espazioa partekatze orduan. Bi ideia nagusi garatu baitituzte bertan: argazkien eta testuen uztartzea, batetik. Eta ikuslea hausnarketak edo sentimenduak agertzeko gonbidapena luzatzea, bestetik.

## Itsasargieko erakarmena

Europako uharte-estatu den Islandiako itsasargiek xarma berezia dute Jürgenentzat, eta haiek erretratatzeko irrikaz ibili da azken urtetan: “117 bat izango dira uhartean, eta horietatik 67

bixitatu ditut; denetara ez naiz iritsi, zenbaitetan ia ezinezkoa baita”. Itsasargiekiko miresmen hori erakusketaren izenburuan bertan (“I miss the days chasing lights”) islatu du Jürgenek. 20 itsasargien irudiek –denak zuri beltzean– eta bederatzi poesiek betetzen dute bere erakusketa, bere sormenetik egindakoak. Betidanik piztu izan zaio sormenerako gogoia, Jürgenek aitortu duenez. “Txikitatik eduki dut barne bulkada hori; margolaritzara bideratu nuen hasieran, eta argazkilaritza eta poesia-

**ARRUTIK ARGAZKIA  
ETA BERTSOA UZTARTU  
DITU. JÜRGENEK  
ITSASARGIEN  
BILDUMA EGIN DU**

tik jo dut azken urtetan, horietan sentitzen naiz erosoan”.

Basterora hurbiltzen den ikusleak zer ikusiko duen eta zer ez zehaztu nahi izan du: “Etxetik irteten zarenetik itsasargira iristen zaren arte, bidaia horretan edukitako bizipenak eta sentimenak islatzen saiatu naiz. Prozesu baten emaitza gisa uler behar da”.

Garrantzia itzela ematen dio bere artelanek ikusleengan eragitea. “Sentimendu eta emozioak jendearekin partekatzea da artearen helburua, interakzio hori funtsezkoa da niretzat. Islandian erakusketetako bat egin ostean, emakume batek idatzi zidan adieraziz zer nolako sentimenduak eragin zizkieten nire irudi eta poesiek. Ez dakizu nola pozten nauten halako mezuek, inondik ere ezagutzen ez duzun pertsona batengandik iritsita!”.

## Bertsolariekin elkarlanean

Aitor Arruti bat dator artea interakzioarako tresna gisa ikus-teko modu horrekin. “Kartzela” du izenburu antolatutako duen erakusketak, eta “bertsotarako gaia irudiaren lau ertzek mugatzen dutenean” idatzi du azalpen gisa. Hain zuzen, bertsolaritzan ohikoa den kartzelaren ariketa du sormenaren iturburu. “Ikusgai jarritako argazkiak ez dira tematika jakin batera makurtzen. Eguneroko objektu zehatzak dira, baina badute sinbologiarik. Istoria bat edo gehiago ebokatzeko dute, airean uzten dute gaia, mezu hartzaileak bere interpretazio propioa egin dezaten gero”. Modu batera edo bestera bertsotan jarduten duten hamabost herritarrekin batera atondu du Arrutik erakusketa. “Bertsolari kontsagratuak dira batzuk, eta bertsozaleak besteak. Bertsoa idaztea proposatu diet guztiei, ez bat-batean jardutea. Argazkiak erakutsi, eta ea nondik jotzen dieten inspirazioak, zer daukaten kontatzeko eskatu diet. Kartzelako ariketan halaxe izaten da, bertsolariari gai bat jartzeko zaio eta bakarka egin behar du. Isolatuta dago, eta ez daki beste bertsolariek zer kantatu duten, beste inoren erreferentziarik gabe. Emaitza, erakusketan ikus liteke; ni, behinik behin, oso gustura nago hamabost lagun horiek erakutsi duten prestutasunagatik, eta erakusketari eskaini dioten ikuspuntu anitzagatik”.

15 argazki ikus ditzake ikusleak erakusketan, eta halaber, horietan hiru bertso egile desberdinek idatzitako bertso bana irakurri ahal izango du. Hona nortzuk diren hamabost bertso egileak: Unai Ormaetxea, Miren Lopez Munian, Aitor Mendiluze, Jokin Sorozabal, Ion Beloki, Jon Eskudero, Aritz Eskudero, Arkaitz Lasarte, Alberto Santa Cruz, Juantxo Arruti, Ekaitz Olo Tolo, Iñaki Alzuguren, Mari Jose Arruti, Ander Gorrero eta Beñat Beloki.

Ormaetxea bertsolari, bertso jartzaile eta antzezleriak adierazi du zein izan den bere zere-

**ISLANDIAN BIZI DA  
JÜRGEN; DANIMARKAN  
ARRUTI. SORMENAREN  
BIDETIK JARRAITU  
NAHIKO LUKETE**

gina: “Arrutik hiru argazki proposatu zizkigun gai librea aritzeko, eta nik horiek begi aurrean ipini eta gero, bertsoa, ikusten nuen aldera baino gehiago ikusten ez nuen aldera bideratzen saiatu naiz”.

## Argazkigintza analogikoa

Argazkilaritza analogikotik jo dute Arrutik eta Jürgenek. “Teknika hori hautatu izana ez da bigarren mailako gauza; zentzua ematen die bien proiektuei. Ez dugu ukatzen teknika digitalak zenbat aukera eskaintzen dituen; baina ez da oso lagungarria zer egiten ari zaren hausnartzerako garaian. Analogikoarekin erabakiak mugatuak daukazu, kontziente zara ezin duzula errealitate guztia kapturatu, eta orduan, egoera ebaluatza behartzen zaitu; zeri egin klik eta zeri ez erabakitzeko denbora inbertitzera eramaten zaitu. Azken batean, barne lan aberasgarria eskatzen dizu analogikoak, ezer argazki formatura eramanez aurretik”. Jürgenek gaineratu duenez, “kontzeptu emozionala presentean edukitzeko sistema egokia da argazkilaritza analogikoa”.

Ormaetxeari, berriz, bertsolaritzak kontzeptu analogikotik asko daukala iruditzen zaio. Parekotasunak ikusten ditu bi kultur adierazpen artean. “Hiru pauso errepikatzen dira sormen prozesuan zehar: lehenbizikoa, pentsatzea zer irudi edo bertsoa sortu behar den; bigarrena, kamerari une jakin batean klik egitea edo bertsoa buruan osatzea; eta hirugarrena, irudia errebelatzea edo bertsoa kantatzea”.

## Bi erakusketak, liburu banatan

Arrutik eta Jürgenek erakusketan ipini dituzten argazki eta testuak liburu banatan topa daitezke. Arrutirena salgai dago Basteroko erakusketan bertan. Jürgenena, berriz, aste batzuk barru kaleratuko da; bien bitartean, bere poesia batzuk biltzen dituen esku orria eskura daiteke erakusketan.

Andoaingo jaioterria orain urte batzuk utzi eta European bizi diren bi gazte dira Jürgen eta Arruti argazkilariak; Islandian lehena eta Danimarkan bigarrena. Argazkigintzak eskaintzen dien sormen bidetik jarraitzeko asmoa daukate etorkizunean ere. Euren bizitokitara itzuli aurretik, zenbait erakusketa jada lotu dituzte Euskal Herrian.

# Urteko lehen parte hartze prozesua, martxan

Dagoeneko zabalik dago aurrekontu parte hartzaileetan proposamena luzatzeko aukera. Herrian zabaldu duten eskuorrian informazioa xehetasun handiz agertzen bada ere, Urnietako Udalak urtarrilaren 24an eta 25ean informazio karpa jarriko du

**Jon Ander Ubeda** ANDOAIN

Laugarren urtez jarraian, Urnietako Udalak aurrekontuen partida bat herritarrekin batera kudeatzeko aukera jorratuko du. Urtez urte partida igoz joan da, eta aurtengoan 150.000 euro bideratuko dituzte. Prozedura doitu da, eta kanal ezberdinen bitartez geroz eta proposamen landuagoak jasotzen dira. garapen hori Mikel Pagolak azaldu zuen astearte eguerdian, Jorge Segurado zinegotziarekin batera deitu zuten agerraldian: "Herritarren proposamen horiek aztertu ostean, aurrera eramaten saiatzen gara. Dinamika errotzen doa, eta garapen bat ikusten ari gara. Lehenengo edizioan, 2017. urtean, proposamen kopuru handiena jaso genuen. Gerora gutxiago jaso ditugu, baina jaso ditugun horiek landuagoak eta zehatzagoak izan dira. Geroz eta gehiago, jasotako proposamenetan, Udalak jarritako irizpideak betetzen dira. Horrek, zorionez, Udal teknikariei lana zailtzen die zeren eta baliozkoak diren proposamen kopurua handiagoa izaten da".

## Informazio karpak

Herritarren esku iritsi da, honetarako, parte hartze prozesua-



Pagola eta Segurado, astearte eguerdiko aurkezpen ekitaldian. AIURRI

ren xehetasunak biltzen dituen eskuorria. Baina horrez gain, herritarrek aurrez aurreko informazioa jasotzeko aukera izango dute. Informazio karpak jarriko baitituzte datorren urtarrilaren 24an eta 25ean. Urtarrilaren 24an, informazio karpa

**HAMASEI URTEKO URNIETARREK PROPOSAMENAK AURKEZTEKO AUKERA IZANGO DUTE**

Etxeberrri plazan eta Guria ondoan ipiniko dute. Lehena, goizez, eta bigarren, arratsaldean. Berrikuntza modura, urtarrilaren 24an "Photocall" delakoa ipiniko dute. Herritarrek gerturatzeko estrategia berria da, zeinaren bitartez herritarren

**INFORMAZIO KARPA IPINIKO DUTE HERRIGUNEKO TOKI SEINALATUETAN, DATORREN ASTEAN**

parte hartze aktiboa sustatu nahi den.

Urtarrilaren 25ean, aldiz, kiroldegiaren kanpoaldean ipiniko dute. Bertara eraman daitezke proposamenak, baina Udalak beste bide batzuk ere zabalik ditu: Webgunea, Urnieta APP aplikazioa eta herrietan barrena ipinitako buzoi eta kutxa ezberdinetan. Jasotako proposamenak aztertu eta gero, zenbat egitasmo finantzatu daitezkeen ikusiko da. Proposamen bakoitzaren gehienezko inbertsioa 50.000 eurokoa izango da, aurreko urteetako gutxienezko kopurua igoz. Horrela arrazoitu zuen Pagola alkateak: "Aurreko urteetan ontzat ematen ziren hainbat egitasmo baldintza bezala ezarritako 25.000 eurotik gorakoak izatera iristen ziren. Muga ekonomikoa hainbat egitasmo kanpoan uzteko arrazoi bilakatzen zen. Eta hori saihesten ahalegindu gara, aurtun. 25.000 eurotik 50.000 eurora arteko egitasmoak finantzatu ahal izango dira. Hori bai, diru kopuru handiko egitasmoak aukeratu gero, ezingo dira egitasmo gehiegi egin. Egitasmo apalagoak eta handiagoak egiteko aukera zabaldu dugu, behintzat".

Beti ere, inbertsioak Udalaren eskumenekoak diren egitasmotan egin ahal izango dira. Udalak, gainera, auzoen arteko oreka bermatzea irizpide modura ezarri du. Hartara, aukeratu egitasmoak ez dira soilik eremu jakin batera bideratuko.

## 16 urtetik gorakoek parte hartu dezakete

Herrian erroldatutako 16 urtetik gorako herritarrek dagoeneko proposamenak aurkezteko aukera zabalik dute. Otsailaren 2ra bitarte zabalik dago epea.

## Parkeak edo plazak estaltzeko prozesu berria, udaberrian

Aurrekontuko 150.000 euroak zertan inbertitzeko parte hartze prozesu horrez gain, Urnietako Udalak bigarren prozesua abiaraziko duela iragarri du. Eta hori haur parkeak estaltzeko buruzkoa izango da. Aste honetako aurkezpen ekitaldian adierazi zuten, zein parke estali erabakitzeko aukera izango dute herritarrek. Prozesu hori udaberrian abiatuko da, lehenengo parte hartze prozesua amaitu eta gutxira.

Aholku modura, Mikel Pagola alkateak bi prozesuak kontutan hartzeko gomendioa luzatu zien urnietarrei. Hots, lehen parte hartze prozesu honetan haur parkeak ez diren bestelako proposamenak aurkezteko eskaera egin zuen. Haur parkeez adierazteko aukera berria izango baita, etorkizun hurbilean.

Haur parkeak estaltzeko ekimena garrantzia handiko gaia izan da, antzeko prozesuak abiatu diren herrietan. Andoain, iaz, parkeak estaltzeko prozedura parte hartze prozesuaren bitartez bideratu zuen Udalak. Eta hasiera-hasieratik parte hartzea oso handia izan zen. Udalak zortzi aukeren artean erabakitzeko eskaintza luzatu zuen, eta boto gehien jaso zituzten proposamenak bi izan ziren: Nafarroa plaza eta Zumea plaza. Negu amaieran abiatu zen parte hartze prozesua, eta lauzpabost hilabeteetan bi haur parkeak estaltzera iritsi ziren. Funtzio garrantzitsua betetzen dute.







Nieblatarrak, iazko abenduan ateratako argazkian. ARGAZKIJABEAXXX

## Legebiltzarrak biktimatzat hartzeko ekimena abiarazi dute

Nieblatarraren eskaerari bidea eman dio internet sarean erakundeei eskaerak bideratzen dizkien Osoigo ekimenak

### Erredakzioa URNIETA

Osoigo internet plataformak, Asier Nieblaren senideekin batera, urnietarraren kasua indarkeria matxistatzat hartzeko kanpaina abiarazi du. Zehazki, Eusko Jaurlaritzako ordezkari zuzendutakoa da eskaera.

Egitasmoaren aurkezpenaren haxe da senideek honako adierazpena egiten dute: "Eusko Legebiltzarreko talde parlamentarioei proposamena babestu eta gure Asierren kasua biolentzia matxistatzat kontutan hartzea nahi dugu. Erregistro ofizialetan hala jasotzea nahiko genuke. Bere galdera ez dadila ahanzturan geratu, eta ez dadila berriro errepikatu. Justizia Asierrentzat". Urtarrilaren 8an abiarazi zuten kanpaina, eta egun gutxitan 500 babes baino gehiago jaso dituzte. Kanpainarekin bat egiteko, Osoigo.com web orrialdean sartu beharra dago.

### Politikoen eta herritarren babesa

Eneko Andueza Gipuzkoako PSE-EEko buruzagiak Osoigoren webgunean bertan atxekimendua adierazi die: "Publikoki Nieblaren familiarekiko konpromisoa adierazten du. Euren esanetara naukate". Yoana eta Juanjo anaiek ere mezu bana idatzi dute, "justizia" eskatuz. Herritar gehiago mezuak idazten ari dira. Garazi Gimenezek, esaterako honakoa idatzi du: "Justizia Asierrentzat!! Ez daitezen gauzak horrela gelditu!!".

Osoigo izeneko plataforma digitala Zarautzen sortu zen, eta dagoeneko Espainia osoko erakundeetako ordezkari zuzendutako ekimenak bideratzen dituzte. Besteak beste, minbiaren prebentzioaren harira, galdera bana igorri die Catalunya edota Madrileko erkidegoetako ordezkari.



Aktore taldea. EGAPEXOU

## Egapexouren saio berriak

Larunbat honetan, "Tsunami" Saroben

### Xabier Lasa URNIETA

Joxe Mari Berasategik zuzenduta Egape ikastolan antzerkigintza jorratzen duten taldeek ez dakite geldirik egoten, eta azken hilabeteetan prestatu dituzten bi antzezlan berrien estreinaldia iragarri dute. Batetik, ikasleen hiru taldek gehi bi gurasok eta DBHko bi ikaslek osatzen duten taldeak "Tsunami antezlana" eskainiko dute larunbat honetan, 18:00etatik aurrera Saroben. Urnietako herritarrei begira antolatutako emanaldia da, eta sarrera doakoa izango da.

### Bururnieta antezlana, AEK euskaltegian

Bestetik, Elaia Marruedo, Liam San Jose, Olatz Iturzaeta eta Vanesa Sanchez osatutako laukoteak 'Bururnieta' antezlana taularatuko du AEK euskaltegian, datorren urtarrilaren 28an.



Idiazabal kalea. AIURRI

## Urnietako merkataritza berraktibatze deialdia

EH Bilduk Urnietako merkataritza bilera batera deitu zituen, elkarte berrartzeko egitasmoa aztertzeko

### Erredakzioa URNIETA

Merkataritza suspertzeko helburuarekin, Urnietako EH Bilduk herriko dendari eta merkatariei bilera egiteko gonbitea luzatu zien. Astelehen iluntzean elkar-tu ziren, eta deialdira zortzi lagun hurbildu ziren. Ainara de Miguelek bileraren berri azaldu dio Aiurri astekariari, "parte hartze txikia izan zen, baina emaitza oso esanguratsua izan da. Bertaratu zirenek euren postura agertu zuten, oso proposamen zehatzak eginez. Bileran bertan hamabost egun barru bigarren deialdia deitzeko erabakia hartu da". Bilera aurretik, bozeramaileak azaldu duenez, Betteri-Buruntzako merkataritza alorreko arduradunekin lanketa egin da. Urnietaren tamainako herrietan dagoen mugimendua aztertu da, "eta ondorioak oso garbiak dira. Herri guztietan Udalak esku hartze zuzena du. Hau da, bada

teknikari bat sustatze lan horretara bideratuta. Urnietan badugu ofizialki teknikari bat, baina bere zereginak oso bestelakoak dira".

EH Bilduk kexa eta egoera bideratzeko eskaera luzatu nahi du: "Herritarren aurrean plaza-ratu dugu Udaletik egon den gabezia, lehentasunik ez diola eman ondorioztatzen baitugu. Gure merkatariek apatia eta babes eza jaso dutela esan genezake, eta bileran zailtasunak dituztela ere entzun genuen. Laguntza eza, zerga handiak, autonomoei laguntza eza...".

Kudeaketa plan bat eskatu dute, merkataritzari ahalik eta laguntza handiena emateko erregua egin du. Bilera berria deitu dute, urtarrilaren 27rako. 20:00tan izango da Lekaion, eta merkataritza, zerbitzu eta profesionalak eta ostalariak gonbidatu nahi dituzte.

## "Mendekuan oinarritutako espetxe politika aldatu behar da"

Sare ekimenak deituta, larunbatean eskualdeko lagun askok bat egin zuten "Orain presoak" deialdiarekin

### Mikel Arberas URNIETA

Milaka lagun elkar-tu ziren Baionako eta Bilboko kaleetan, espetxe politikan aldaketa eskatzeko. Sare ekimena izan zen deitzailea, eta Karmele Urbistondo kideetako da. Manifestazioaren atarian hauexek izan ziren Aiurriri bideo bidez eskainitako adierazpenak: "Bilbon gaude, San Mames aurrean, eta beste urte batez espero dugu bezala milaka eta milaka pertsona elkartzea. Manifestazioa-

ren helburuak ez dira aldatu. Aldarrikatzera eta eskatzera gatz mendekuan oinarritutako espetxe politika hau aldatu beharra dagoelako. Urte gehiegi irauten ari da, eta egoera honek denbora luze gehiagoz iraun dezan ezin dugu geure buruari onartu".

Azken urteotan politikan egon diren aldaketak hizpide izan zituen urnietarrak. Baina espetxe politikan lehengoan daudela, salatu zuen: "Esan dudana bezala, mendekuan eta giza eskubideen

ren helburuak ez dira aldatu. Aldarrikatzera eta eskatzera gatz mendekuan oinarritutako espetxe politika hau aldatu beharra dagoelako. Urte gehiegi irauten ari da, eta egoera honek denbora luze gehiagoz iraun dezan ezin dugu geure buruari onartu".



Karmele Urbistondo. AIURRI

aurkako politikan, espetxe politika honek aldatu behar du; gaxorik dauden presoak etxeratu behar ditugu. Euren legearen arabera kalean egon beharko lukete. 70 urteko presoak ditugu, gaur gaurkoz, horiek ere atera egin behar ditugu. Badirudi ez dela ezer pasa Euskal Herrian azken urteetan, baina gauza asko, garrantzitsuak eta beharrezkoak gertatu dira". Gobernu berriari aurtengo manifestazioan bildutako jendetza kontutan hartzea eskatu zion, azkenik.



Julen Aizpuruk debuta egingo du Asteasun, hilaren 24an. AIURRI

## Trinketeko finalak eta txapelketa Nazionala asteburuan

**PILOTA** Esku pilotak hitzordu ugari izango ditu asteburuan Idiazabalgo eta Irurako frontoiean.

### Mikel Arberas ANDOAIN

Asteburuan Trinketeko Kluben Arteko Gipuzkoako eskuz banakako finalak jokatuko dira Iruran. Larunbatean, nagusien arteko lehia ikusgai izango da Ametsa Trinketean. Igandean kadeteen eta jubenilen txanda izango da.

Horrez gain, Andoaingo Gazteleku Pelota Elkarteak Txapelketa Nazionala jokatuko du Amezketako Zazpi Iturri elkar-tearen aurka. Partidak Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan jokatuko dira larunbatean goizeko 11:00etatik aurrera.

### Aizpururen mementoa

Asteasuarrak 21 urterekin egingo du debuta Garfe enpresan. Lesio asko pasa ditu, baina, azken aldia maila ona erakusten ari da eta horren erakusle da pilota enpresak atzelariarengan jarri duen interesa.

Julen Aizpuruk eta Aitor Mendizabalek Xabi Urbietak eta Julen Urruzolaren aurka jokatuko dute. Norvehiagoka urtarrilaren 24an izango da gaueko 22:00etatik aurrera, Asteasuko frontoiean. Sarrerak Asteasuko Kabela tabernan erosi ahal izango dira aurretiaz 7 euroren truke.



JOXE MARI IGARATEGI (BIKOITZ ARGAZKIDENDA)

## Hitzordu garrantzitsua Allurralden

**ESKUBALOIA** Partida garrantzitsua asteburuan Leizaranekoek jokatuko dutena; jubenilek igandeko irabaziko balute, lehenengo postua lortuko lukete eta, beraz, Gipuzkoako Txapelketako garaileak bilakatuko lirarteke. Zaletuak partida ikustera joateko deia zabaldu du eskubaloia klubak.

# Selekzioan jokatzen jarraitu nahi du

**ESKUBALOIA** Ander Egañak gorakada handia izan du eskubaloian. Leizaran taldean jokatzen hasi eta, egun, Euskal Selekzioarekin jokatzen iritsi da. Infantil mailan deitu zuten, lehen aldiz. Eta kadeteetan ere selekzioaren deia jaso du

### Mikel Arberas ANDOAIN

**Nondik nora hasi ziren Euskal selekzioaren deialdietan parte hartzen?**

Euskal Selekziokoek Euskadi guztiko klubekin harremana dute, eta selekzioarekin jokatze-maila nuela irudituko zitzaizkien. Hasieran Leizaran taldearekin kontaktuan jarri ziren eta, ondoren, nire gurasoekin.

Infantil mailan ere Euskal Selekzioaren parte hartzen izan nintzela, baina ez nuen batere jokatzen. Oraingoan, berriz, askoz gehiago jokatuko dut.

**Hautatzaileek zer bilatzen dute kadete mailako jokalarientzat?**

Batik bat gutxieneko altura hori eskatzen dute. Horrez gain, azkarra izatea, jaurtitzaila ona izatea eta indarra edukitzea.

Hasieran ez nuen sinisten. Jokalari asko Gipuzkoako, Arabako edo Bizkaiko selekzioetik hartutakoak dira, baina ni zuzenean Euskadiko Selekzioan sartu nintzen.

**Zer da Euskal Selekzioa zuretzat?**

Beste talde bat da. Lagun gehiago egiten dituzu, errendimendu gehiago eskatzen dizute eta maila altuagoa da. Beste mundu bat da. Ohiko entrenamendu bat egin ostean, Euskal Selekzioko entrenamendura joaten zarenean, maila askoz ere altuagoa dela ohartzen zara.

Lehenago esan bezala, ohiko taldeen eta selekzioaren artean ezberdintasunak badaude; pentsa, Euskadiko hamasei jokalaririk hoberenak izango dira selekzioko kide bilakatuko direnak. Maila dago, eta jokalaririk oso onak daude tartean.

**Zertan oinarritzen da selekzio autonomikoaren Espainiako txapelketa?**

Espainiako selekzio autonomikoek leku bat aukeratzeko dute talde guztiak elkartzeko, eta, bertan, taldeen artean zozketa bidez nork noren aurka jokatuko duen aukeratzeko da. Talde horien artean Espainiako Kopa



Egaña andoaindarra, euskal selekzioko elastikoarekin. AIURRI

txapelketa eta Espainiako txapelketa jokatzen dira. Bi lehiaketa ezberdin direla esan genezake. Kopan lehiatu diren hoberenak Espainiako txapelketa jokatzeke aukera edukiko dute; eta txapelketan emaitza txarrekin lortu dituztenak Kopa izeneko lehiaketara jaitsiko dira. Hau guztiaren ostean, guztiok ezagutzen ditugun final-laurdenak, final-aurrekoak eta finala jokatuko dira.

Infantiletan Kopako lehenengo postua lortu genuen, urrezko domina, baina ez da horren sentsazio ona Espainiako bederatzigarren postuan geratu baikin. Aurten, Espainiako bosgarren geratu gara, eta sentsazio askoz hobeeekin.

### Eskertza

"Gauza asko lortu ditut orain arte, baina guzti hau posible egiteko ezinbestekoa izan da, entrenatzaileen, lagunien eta familiaren babesa eta laguntza.

Horrez gain, nabarmendu nahiko nuke Itxaro Aizpurua eta Iker Oruezabala ere 16 hautatuen artean izan direla. Hauek ere lan handia egin dute eta behar den aitorpena egitea egozia iruditu zait".



Malen Moraindeira. BERABERA

## Malen Moraindeira urnietarra

Urnietarra Bera Bera taldean tokitxo egiten ahalegintzen ari da, iaz Andoni Urbistondori eskainitako elkarriketan adierazi zuen bezala. Berriki, estatu mailako selekzioetik lan saioetan aritzeko deitu dute.





IRITZIA

ANDONI URBISTONDO  
URNIETA

# Mende laurden

Mende laurden borrokan, izan behar zen iritzi honen lerro burua, baina mende laurden hobetsi dut. Borrokan ibili izan naiz, baina gozatzen gehiago, zalantzarik gabe. 25 urte, aurten kazetari jardunean. 1995eko ekainean Leioako campus-eko bisitak oso urriak zirenean, Miguel Indurain handia bere bosgarren Tourra irabaztearen. Ni eta 1995 urtekoak Indurainen kintako kazetariak gara. 25 urtek askorako ematen dute. Bi hamarkada eta erdi atzera kazetaritza erronka, aukera zen, lana bazegoen. Egun nabarmen konplikatu da egoera, kazetari jardunean orokorrean.

Ikusi eta ikasi genuen, eta bidea egin. Tebistan ikusten nituen idoloak elkarriketatuta ditut, prentsa idatzian trebatu, ahozkoan zaildu, eta egunerokoan onartu hau ez dela ofizio samurra. Polita bai, samurra ez. Bizkarreko asko hartzen dira, muturrekoak ez direnean, eta horiek gestionatzen ere asmatu egin behar. Pasa den astean espero ez nuen egoera zail bat gestionatu behar izan dut, nire erruz. Zehar kalte bat, ulertze aldera. Baina gorputzaldi txarrarekin nago orduz geroztik. Asuntua erdizka utzi izan banu bezala, eta egoera tenkatuta geratu izan balitz bezala, zer egin ez

dakidala. Edo zerbait gehiago egitea komenigarria ote litzatekeen ez dakidala.

Beltz eta zuri zaleak gara gure herri txiki honetan. Gehiegi. Gara esan dut. Ni ere bai sarri. Batekin bazaude, bestearren kontra. Eta nazka apur bat ematen dit egoera horrek. Zer esanik ez espero ez diren zehar kalteak sortzen direnean. Hurrengo asteartean Euskadi Fundazioak aurkezpen ekitaldia egingo du San Mamesen. Errepidera jauzi egin aurreko azken ekitaldi ofiziala. Han izanen dira Urnietako bi mutilak, lagunak: Mikel Iturria eta Mikel Alonso. Baita harreman ona dudana beste asko ere. Suerte denei, suerte proiektuari, haz daitezela eta eman diezazkigutela poz asko errepidean. Euskal Herria zerbait bada, txirrindulari herria da, eta nik euskal txirrindulari talde profesional bat ikusi nahi dut errepidean, munduko lasterketa onenetan. Kolore berdekoa edo laranjakoa izan.

Koloreak aipatu ditut, berdekoa izateak laranjaren

**"KAZETARIAK ZERBAIT BEHAR BADU KRITIKO IZATEKO GAITASUNA DA. ERRESPEZTUZ, BETI"**

aurkakoa zarela esan nahi baitu batzuentzat. Euskadi-Murias taldea hauspotu dut eskura nituen baliabideekin, publikoki: prentsa idatzian, mikrofonoetan, sare sozialetan. Sinesten nuen proiektu hartan. Baina itzali da. Babeslerik gabe geratu zen udazkenean eta agur. Itzali da, baina itzalarazi zutela, edo hiltzen utzi zutela esan nuen bere garaian. Eta hala pentsatzen segitzen dut. Baina hori esan edo pentsatzeak ez du esan nahi kolore laranjaren kontra nagoenik. Babestuko dut Fundazioa, babestuko ditut mutilak, babestuko dut euskal txirrindularitza.

Kazetari jardun, baina sentitzen denak, ezin du izaera kritikoa alboratu. Inoiz ez. Kazetariak zerbait behar badu kritikoa izateko gaitasuna da. Errespetuz, beti, eta argudioz beteta, ahal den oro, baina kritikoa. Erratzeko eskubidea baitugu denok. Bai behintzat borondate txarrik gabe egindako akatsak baitira. Bestelako kontua litzateke borondate txarrez jokatzera, kazetaritza bera mugatzen saiatzea, nola esan suabe, joko zikina eginez. Joko zikinak zehar kalteak sortzen baititu, eta zehar kalteek espero ez diren egoera deserosoak sortu. Horiek kudeatzen ere ikasi egin behar da.

## Arazaok bere horretan dirau

Aurreko asteburuan, beste behin ere, Adarramendira abiatutako mendizaleen ibilgailuak errepidearen alde banatan utzita ageri ziren. Udalak eta Trafiko sailak argi adierazi dute, ez dutela joera hori balioesten. Erakundeek trafikoa bideratzeko neurri zuzentzaileak arindu beharko dituzte, bide segurtasuna bermatze aldera. Oraingoan isunik ez zen jarri.



ANDONI URBISTONDO

## KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

### FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**  
Mondragon-Euskalduna **3-1**

**NESKAK, 0. ERREGIONALA**  
Urnietako-Arizmendi **0-4**

**ERREGIONAL PREFERENTE**  
Dunboa-Urnietako **1-3**

**ERREGIONAL 1. MAILA**  
Usurbil-Euskalduna **3-1**

**SAILKAPENA**  
**1** Segura Goierri **28 puntu**  
**6** Euskalduna **20 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**15:30** Euskalduna- Intxurre / Ig, 18

**PREFERENTE NESKAK**  
Euskalduna-Añorga **0-1**

**SAILKAPENA**  
**1** Añorga **31 puntu**  
**2** Euskalduna **25 puntu**

**JUBENIL MAILA, OHOREZKO**  
Euskalduna-Pasaia **0-1**

**SAILKAPENA**  
**1** Euskalduna **36 puntu**  
**2** Touring **33 puntu**

**JUBENIL MAILA, KOPA**  
Ostadar-Euskalduna **2-1**  
Urnietako-Amara Berri **5-2**

**SAILKAPENA (3. MULTZOA)**  
**1** Igeltegi **3 puntu**  
**2** Urnietako **3 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**17:30** Euskalduna- Zarautz / Ig, 18

**JUBENILEN LEHEN MAILA**

**SAILKAPENA**  
**3** Urnietako **24 puntu**  
**6** Euskalduna **16 puntu**

**KADETEAK, IGOERA FASEA**  
Antzuola-Euskalduna **0-5**

**SAILKAPENA**  
**1** Euskalduna **6 puntu**  
**2** Lazkao **6 puntu**

**KADETE, KOPA**  
Urnietako-Astigarraga **2-2**  
Euskalduna-Usurbil **1-8**  
Billabona-Urnietako **1-6**

**SAILKAPENA (7. MULTZOA)**  
**3** Urnietako **3 puntu**  
**7** Euskalduna **0 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**17:30** Urnietako-Ostadar / Ig, 18

**KADETE NESKAK**  
Danena-Euskalduna **0-3**  
Urnietako-Intxaurdi **0-1**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**16:00** Urnietako- Usurbil / Ig, 18  
**10:30** Euskalduna- Ostadar / Ig, 18

### ESKUBALOIA

**EUSKADI, SENIOR MUTILAK**  
Urnietako-Urdaneta **26-28**

**SAILKAPENA**  
**1** Corazonistas **25 puntu**  
**12** Urnietako **6 puntu**

**GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK**  
Egia-Urnietako **22-24**

**SAILKAPENA**  
**1** Egia **20 puntu**  
**2** Urnietako **18 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**12:00** Urnietako- Legazpi / Ig, 19

**GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK**  
Bergara-Leizaran **26-36**

**SAILKAPENA**  
**1** Saieko **20 puntu**  
**4** Leizaran **14 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**17:30** Leizaran- Elgoibar / Ig, 18

**GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK**  
Urnietako-Egia **34-16**

**SAILKAPENA**  
**2** Leizaran **8 puntu**  
**4** Urnietako **4 puntu**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**11:30** Leizaran- Egia / Ig, 19

**GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK**  
Leizaran-Eibar **18-23**  
Urnietako-Usurbil **24-23**

**GIPUZKOA, KADETE MUTILAK**  
Urola-Leizaran Horia **33-17**  
Leizaran-Ereintza **30-23**  
Egia-Urnietako **28-25**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**10:15** Urnietako-Eibar / Ig, 19

**GIPUZKOA, KADETE NESKAK**  
Leizaran-Elgoibar **27-23**  
Urnietako-Ereintza **19-22**  
Urnietako-Aiala **16-13**  
Leizaran-Egia **24-18**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**10:15** Urnietako-Eibar / Ig, 19

**GIPUZKOA, KADETE NESKAK**  
Leizaran-Elgoibar **27-23**  
Urnietako-Ereintza **19-22**  
Urnietako-Aiala **16-13**  
Leizaran-Egia **24-18**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**10:15** Urnietako-Eibar / Ig, 19

**ARETO FUTBOLA**

**LIGA, 1. JARDUNALDIA**  
Berazubi-Euskalduna **3-2**

**ASTEBURUKO PARTIDA**  
**16:00** Euskalduna- Pizzeria B17 / Ig, 18

**SASKIBALOIA**

**SENIOR GIZONEZKOAK 3. MAILA**  
Zurrut-Take Coach **55-67**

**JUNIOR GIZONEZKOAK**  
Cafes Aitona-Ganbara **59-69**

**KADETE GIZONEZKOAK**  
Andraitz-Ganbara **62-52**

## HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 16

**URNIETA Lehiaketa**

Gazteei zuzendutako diaporama lehiaketaren edizio berria martxoan da. Urtarrilaren 24an amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

**Oinarriak: Urnieta.eus.**

**ANDOAIN Lehiaketa**

"Andoain Laburrean" lehiaketa martxoan dago. Urtarrilaren 30ean amaituko da proposamenak aurkezteko epea.

**Informazio gehiago, 8. orrialdea.**

**ANDOAIN Bilerak**

"Pausoz pauso" emakumeak omentzeko ekimena abian jartzeko deialdia luzatu du, Berdintasun sailak.

**18:00, Urigain.**

## OSTIRALA 17

**ANDOAIN Kontzertua**

Lorelei musika taldearen kontzertua.

**21:30, Bastero. 12 euro.**

## LARUNBATA 18

**URNIETA Dantzaldia**

Agirren orkestra.

**18:00, Denda Berri.**

## OSTIRALA 24

**ANDOAIN Erakusketa**

Aitor Arruti eta Mak Jürgen gazteen erakusketa ikusteko azken eguna.

**Bastero, erakusketa gela.**



Lorelei taldea, artxiboko irudian. CORREO

**ANDOAIN Lorelei taldearen berragerpena**

Mikel Gorosabel EH Sukarra taldeko kantariak eta Asier Serrano idazleak 90eko hamarkadaren amaieran zeresana handia eman zuten bi disko argitaratu zituzten, Lorelei izenarekin. Urteetako isilunearen ondoren, Euskal Herrian barrena zuzenean aritzeko asmoari berrekin diote. Lehen emanaldia Andoain izango da, ostiral honetan. Laukotean arituko dira, Antxon Sarasua eta Loiola Madera musikariaren laguntzarekin.

**Urtarrilak 17, ostirala. 21:30, Bastero.**

## LARUNBATA 25

**ANDOAIN Pailazoak**

"Bizi dantza" Pirrib, Porrotx eta Marimotots. Sarrerak dagoeneko salgai.

**16:00, 18:30, Bastero.**

**URNIETA Batzar orokorra**

Denda Berri elkartearen batzar orokorra: 2020rako jarduera programa eta gastuen aurrekontua aurkeztuko dituzte, besteak beste.

**17:30, Denda Berri.**

**ANDOAIN Ospakizuna**

"Larramendi eguna", euskararen aldeko ospakizuna. "Ezina egina" leloaren irudi erraldoia osatuko dute. Partaideen artean txokolata bera banatuko dute.

**18:30, Goikoplaza.**

## IGANDEA 26

**URNIETA Haur antzerkia**

"Izeba tekla", Xabier Lizasoren eskutik. Musika, jolasa eta pianoa.

**18:00, Sarobe.**

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Richard Jewell**

Larunbata, 18.

19:30, 22:00.

Ig, 19. 19:30.

Ast, 20. 19:30,

22:00.

**Espias con disfraz**


Lar, 18. 17:00.

Ig, 19. 17:00.

**Aida, Bartzelonako Liceu-tik zuzenean.**

Asteazkena, 22.

19:45.



## SINOPSIS

**Richard Jewell**

**Zuzendaria:** Clint Eastwood. **Gidoia:** Billy Ray. **Aktoreak:** Paul Walter Hauser, Sam Rockwell, Kathy Bates, Jon Hamm, Olivia Wilde, Wayne Duvall... **Herrialdea:** AEB (2019). **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 131 min.

## Eastwooden maisulan berria

Atlantako Joko Olinpikoak. 1996. Jewell segurtasunera bideratutako enpresa bateko langilea zen, lehergailuz beteriko motxila aurkitu zuenean. Aurkikuntza horri esker sarraskia saihestu zuen. Gizartearen aurrean heroizat hartu zuten,

hasiera batean. Gerora, ordea, susmagarri bilakatu zen eta errudun gisa ikertu zuten. Benetako gertaeretan oinarritutako kasu erreala da, dramaz betea, eta gai arantzatsu horiek lantzen maisu bilakatu da Eastwood zuzendaria.

## Basteron opera ikusteko aukera

Operazaleek Andoain bertan zuzenean emanaldiak Basteroko pantailan ikusteko aukera izango

dute. Datorren astean Giuseppe Verdi ren "Aida" eskainiko dute. Otsailean, berriz, "Carmen".

# Datorren Aiurri, Txotx denboraldi berria eta Kantu Liburuxkaren edizio berria





## ZORION AGURRAK



**ANDOAIN**  
**Euken Ariztimuño**  
**Balentiaga**  
Eukenek 10 urte bete zituen urtarrilaren 10ean. Muxuak etxekoan partetik!!!



**URNIETA**  
**Aritz**  
Zorionak Aritz! zortzi urte!!! Ondo pasa eguna etxeko guztiekin!

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian. Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

**www.aiurri.eus**

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

**diseinua@aiurri.eus**

Idatzi: izen-abizenak, herria, eguna. **Arantzibia 4-5, behea** Etor zaitez bulegora, Andoainera. **Whatsapp bidez:** 619 163 537.

## ODOL EMAILEAK

**URNIETA**

**Urtarrilak 31, ostirala**  
18:30-20:30.  
Anbulatorioa.



## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ANDOAIN**

**Larunbata 11 eta igandea 12**  
MONFORT: Aita Larramendi, 26.  
943 300 913 Andoain.

**URNIETA**

**Larunbata 11 eta igandea 12**  
TENA: Kale Nagusia, 16.  
943 543 718 Astigarraga.

**GAUEZ**

ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.  
943 336 022 Hernani.

## Diaporama lehiaketaren edizio berria antolatu dute Urnietan

15 urtetik gorako eskualdeko gazteek parte har dezakete. 375, 150 eta 75 euroko hiru sari banatuko dituzte

**Erredakzioa URNIETA**

Bidaiekin kontakizuna sustatzeko helburuarekin, Gazte Informazio puntuak 2012 lehiaketaren edizio berria antolatu du. Aurkeztutako lanak bidaiei buruzkoak izango dira, eta hautagaiek ikus-

entzunezko material horrekin 30-45 minutuko ahozko aurkezpenean egin beharko dute. Aurkezpeneak banaka edo taldean egiteko aukera eskainiko da, beti ere taldearen gehieneko parte hartzaile kopurua 4 lagunekoa bada.

Lanak aurkezteko epea zabalik dago, datorren urtarrilaren 24ra bitarte. Lanak Lekaion, Urnieta.eus webgunean edota Gazte Informazio Puntuak aurkeztu behar dira. Sariak diruz hornitutakoak izango dira. Irabazleak 375 euroko saria jasoko du, eta hurrengo bi sailkatuek 150 eta 75 euro.

Hiru finalistek jendaurreko aurkezpenean egin beharko dute otsailaren 14an, otsailaren 21ean eta otsailaren 28an, hurrenez hurren.



Mikel Artola zinegotzia, eta Olatz Urretavizcaya Gazte informatzailea. URNIETAKOUDALA



# Larramendi Eguna

**2020ko urtarrilaren 29an Manuel Larramendi hil zeneko 254. urteurrena beteko da, eta unea nahi genuke probestu Larramendi eguna antolatzeko.**

Urtarrilaren 25ean, larunbarekin, arratsaldeko sei eta erdietan hasita, EZINA EGINA leloaren giza irudi erraldoia osatu eta argiz beteko dugu gure sakeleko telefonoekin Andoaingo Goikoplazan, Larramendiren ondoan; jarraian, partaide guztiei Larramendik hain gogoko zuen txokolate jana eskainiko diegu eta, bide batez, Larramendiren adierazpena irakurriko dugu.

ANIMA ZAITEZ ETA ANIMA ITZAZU INGURUKOAK.  
Linternadun telefono mugikorra eramatea nahikoa, edo linternatxo.

**ANDOAINEN, 400 EUSKALTZALE BEHAR DITUGU GURE HELBURUA LORTZEKO**

**Ea guztion artean lortzen dugun Ezina egitea!**

Andoainen 400 euskaltzale bildu behar ditugu "EZINA EGINA" leloa mugikorren argiekin edo linternekin irudikatzen.

**Urtarrilak 25, larunbata**

**18:30**

**GOIKOPLAZA**

IZEN-EMATEA:



bazkuna@larramendi.org



# Emakumeen balioa nabarmentzeko ekimena

Alor ezberdinetan nabarmendu diren herriko emakumeak eta elkarteak omentzeko "Martxoak 8 emakume" egitasmoa berrabiarazi nahi du Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak. Bilera irekia antolatu dute Urigainen, ostegunean 18:00tan hasita



lazo edizioko kalejira, Andoaingo kaleetan barrena. AIURRI

## Erredakzioa ANDOAIN

"Martxoak 8 emakume" egitasmoaren bitartez, hainbat emakume eta elkareren lana kale-

jira koloretsu baten bidez argitarara eman nahi izaten dute. 2012an estrainekoz antolatu zuten, eta geroztik etenik gabe

aurrera darraite. Andoaingo Udaleko Berdintasun Sailak ekimena antolatzeko bilera irekia deitu du.

## Omenduak, urtez urte

Hamarkada osatzeraz doaz, urtez urteko deialdiak gogora ekartzen hasita. Jarraian, ekimenaren bitartez omendutako pertsonak. Hainbat kasutan, aipatzen diren izenak elkarte edo mugimenduetako ordezkariak dira.

2019 Maria Lazaro, Paula Nogales, Yolanda Canora, Andoaingo Banda errepublikanoko emakumeak, Ane Jalon, Julia Corbo, Izaskun Jauregi, Asun Garcia, Asanblada feministako kideak.

2018 Rosi Agirre, Goyita Zubillaga, Marisol Fernandez, Miren Erkizia, Izorne Tena, Miren Dominguez, Susana Cencillo, Ainhoa Zabala, Ihintza Oiartzabal, Maite Olmeño, Marta Diez, Nora Mendizabal.

2017 Beatriz Amondarain, Miren Etxezarreta, Maite Belamendia, Angela Velo, Deidar elkarte, Eva Gutierrez, Toñi Lopez, Haize Irulegi, Kontxi de la Fuente, Batukada feminista.

2016 Milagros Sorrarain, Tere Otamendi, Itziar Gorostegi, Juanita Ikutza, Beatriz Garcia, Karmina Dominguez, Ixiar Arin, Marga Oyarzun, Gaztelekuko pala taldeko emakumeak.

2015 Ixiar Oiartzabal, Maria Ormazabal, Maria Erkizia, Ambrosia Ponce, Rosario Guiu. Elena Lertxundi,

Galardiko hezitzaile emakumeak, Alberto Agirreko emakumeak, AEKko irakasle emakumeak, Rosa Luena, Eva Pelaez, Axeridantza taldeko emakumeak.

2014 Maria Luisa Gabirondo, Mertxe Saldias, Marikruz Lekuona, Ines Lekuona, Ana Maria Iribarren, Arantzazu Mujika, Ariane Kamio, Olaia Kamio, Olinda Monteiro, Maria Luisa Etxeberria, Toñy Abello, Anabel Fernandez, Antonia Ayerbe, Amaia Arsuaga, Nerea Arsuaga.

2013 Dolores Iztueta, Begoña Tolaretxipi, Irene Arregi, Niko Langara, M<sup>a</sup> Cruz Bidarte, Rosario Rio, Esperanza Rodríguez, Maialen Santa Kruz, Ixiar Eizmendi, Leire Aizpurua, euskara transmititu duten amak.

2012 Felicitas Irigoras, Jone Aldaz, Maria Jesus Fernandez, Juanita Sancho, Teresa Regil, Nuria Serrano, Izaskun Beneitez, Ainhoa Aier-tza, Maixabel Lopez de Arregi, Ane Huizi, Alaine Jauregi, Elixane Jauregi, eta ikastetxeko ikasleak.

**LEHEN BILERA  
OSTEGUN HONETAN  
URIGAINEN  
IZANGO DA,  
18:00TAN HASITA**

## MATRIKULA ZABALIK!

URTARRILAREN 27tik OTSAILAREN 7ra



# EGAPE

Urnietarron ikastola publikoa



ATE IREKIAK ETA BILERA INFORMATIBOA

2 URTE

Urtarrilak 22, Etxeberri Plaza, 17:00 DBH

Urtarrilak 16, Azkorte, 17:00

[www.egape.eus](http://www.egape.eus)

